


P.-T. Ducourrau naturalistaren kaierak

Biarritzeko XIX. mendeko aberediaren iruditegia

Xabiroi zuria

Arrainak



Ezaugarri fitxa

P.Th. Ducourrauren terminologia

Izen zientifikoa: **Trachinus Draco**
Frantsesezko izena: **La vive, Dragon de mer**
Sailkapena: **Ordre 7e thoraciques 5e famille Trachinides**
Beste izenak: **Chaque-dits (Gaskoinez - pique doigts), Aragna (Proventzeraz)**

Gaurko terminologia

Izen zientifikoa: **Trachinus draco**
Frantsesezko izena: **Grande vive**
Euskarazko izena: **Xabiroi zuria**

Izena / Sailkapena

Vive edo Dragon de mer. Trachinus Draco. Lin. Gaskoinez Chaque -dits, Proventzeraz Aragna Drumeril-en 5. ordena.

Eskuizkribuaren transkripzioa

Xehetasunak

1. Saihetsetik ikusia
 2. Azpitik ikusia
 3. Postura normalean ikusia, igeri egiten ari.
- Zakatzak edo brankiak
Eztena edo azkona

Deskribapena


Xabiroia Holobrankioen ordenako eta jugularren edo autenopteroen (hegalak lepoan dituztenak) familiako arraina da. 0,25m.ko luzera du, baina ez du sekulan kilo erdia edo libera zaharra gainditzen. Hemen aurkezten denlagina hondartzan atxeman indibiduo gaztea da, helduak (ur ?) handitan egoten dira. Arrain horren haragia xuria da, sendoa, hostoretsua, zapore bikainekoa eta errex lixeritzen dena. Proventzako biztanleek armiarma deitzen dute bere zitzadak apteroen (hegal gabeak) ordenako eta Araneidoen edo antena gabeen familiako intsektuaren zitzadaren antzeko kalteak zituelakoan, latindarren « arana ». Bi animalia hauen kalteak, gure klimetan, direna baino handiagozat hartzen

P.-T. Ducourrau naturalistaren kainerak

Biarritzeko XIX. mendeko aberediaren iruditegia

Xabiroi zuria

Arrainak



Ezaugarri fitxa

P.Th. Ducourrauren terminologia

Izen zientifikoa: **Trachinus Draco**
Frantsesezko izena: **La vive, Dragon de mer**
Sailkapena: **Ordre 7e thoraciques 5e famille Trachinides**
Beste izenak: **Chaque-dits (Gaskoinez - pique doigts), Aragna (Proventzeraz)**

Gaurko terminologia

Izen zientifikoa: **Trachinus draco**
Frantsesezko izena: **Grande vive**
Euskarazko izena: **Xabiroi zuria**

dira. Xabiroia, arriskutsua ez den arren, bere ziztada biziki minbera da, eta lekukotasun batzuek diote arrain horren azkonaren ziztada baten ondotik pertsona batzuek samina pairatu dutela 8 eta 15 egunez, baita gehiago ere. Biarritzeko Dormanto Jaunak erran dit, Aturrin ziztatua izan zela, eta mina hain zen bizia non erotu zitekeela, eta bere buruaz beste egin nahi zuela Aturrira jauzi eginez. Ezkerreko eskuan ziztaturik, bat batean beso osoa bizi gabe

Eskuizkribuaren transkripzioa

gelditu zitzaion eta mina gorputz osora hedatu zitzaion. Haren adiskide batek, arrain horren sekretua ezagutzen zuena, arraina ideki, gibela hartu, zapaldu eta ziztadaren gainean ezarri zuen : mina segidan arindu zen eta 9 orenen buruan sendatua zen.

Xabiroiak 8 azkon ditu, zakatz (arrainak arnasteko lepoan dituen idekidurak) bakoitzan bat, bizkarreko hegal 1 hiru ziztekin, eta besteak kima gainean.

Arraina freskoa delarik zakatzak gorriak ditu.

Oharrak

Dormanton Jaunak baieztatua, berak bi espezie ezagutzen ditu Biarritzen.

Arraina bera, 3 ikuspegitan aurkeztua, 1865eko abenduaren 10ean Euskaldunen kostako kaian harrapatu lagina, eta bere neurri naturalean margotua.